



BCG INSTILAZIOAK DITUZTEN PAZIENTEEI INFORMAZIOA EMATEA

EKINTZA:

BCGa instilatzea terapia bat da. Terapia hori datza medikamentu bat maskurian sartzean. Horren ondoren hanturazko erreakzioa eragiten du medikamenduak. Erreakzio horri esker, zenbait pazienteetan, maskuriko tumoreak berriz azaltzeko aukera murrizten du. Zenbait kasutan zistitis kronikoa duten pazienteen sintomak hobetzeko ere erabiltzen da.

ERABILERA:

Aldizkako instilazioak egiten dira, kalibre txikiko maskuriko zunda baten bidez.

Tratamendu hori Eguneko Ospitale Medikuan eskaintzen da- Txagorritxu AUO

Tratamendua hartu ondorengo bi orduetan pixarik ez egitea gomendatzen da.

GOMENDIOAK:

Tratamendua eman ondoren, eta jada zure etxean zaudenean, etzanda edo eserita egon behar duzu gutxienez 2 orduz, erosotasun eta ongizate irizpideei jarraituz.

Bi orduren buruan, pixa egitea komeni da, ahal bada eserita. Komeni da lehen sei orduetan pixa egin ondoren komuna lixibarekin desinfektatzea (200 ml. inguru lixiba bota eta 15 minutuz utzi kateari tira egin aurretik).

LEHEN ALDIZ PIXA EGIN ONDOREN, instilazioaren egunean 2 litro ur edan behar duzu.

ALBO-ONDORIOAK:

Lehen 48 orduetan hauek ager daitezke:

- Odola gernuan, pixa egiteko gogo handia, mina pixa egitean eta mikzioaren maiztasuna handitzea, artikulazioetan mina, sukarra eta hotzikadak, eta ondoeza.
- Pazienteak bi egunez 38°-ko sukarra badauka, ondoeza larria baldin bada, edo etengabeko odol-jarioa badu, Larrialdietara joatea gomendatzen dugu.